

Larrotxenek ekoiztutako *AZKEN, SEGUNDO* film laburrak fikziozko lehen saria lortu du amateur mailan Lekeitioko Zine eta Bideo Bileran

Enkarzinek eta Ikuskak ere kultur etxearen beste ekoizpen batzuk hautatu dituzte

Pasa den larunbatean, azaroak 28, amaitutako **Lekeitioko XXXII. Zine eta Bideo Bileran** Larrotxene Kultur Etxean ekoiztutako ***AZKEN, SEGUNDO*** film laburrak fikziozko lehen saria lortu du amateur mailan. **Michel Gaztambidek eta Jorge Gilek** iaz emandako gidoi ikastaroaren ikasleek egin zuten filma eta **Nahikari Beltzak** zuzendu du.

2008-09 ikastaroan Donostiako **Larrotxene Kultur Etxeko ikus-entzunezko sailak 21 lan** sortu zituen. Horietako **13, ikastaroetan egindako bideoak** dira, eta beste **8, elkarlanean ekoiztutakoak**, Kultur Etxeak eskaintzen duen laguntza teknikoari eta aholkularitza zerbitzua erabiliz. Azken aste hauetan, gainera, horietako bideo batzuk aipamen bereziak jaso dituzten zinemaldi ezberdinetan.

Hasteko, Zallako Enkarzine jaialdiak (urriak 19-24) ***LA ÚLTIMA PUERTA*** dokumentala aukeratu zuen lehiaketan parte hartzeko. Bestalde, Pasaiako XI. Ikuska erakustaldian ***LLEGARÉ TARDE, AZKEN, SEGUNDO*** eta ***BIENVENIDOS A MI FIESTA*** lanak hautatu zituzten Gipuzkoako film labur onena erabakitzeko orduan.

AZKEN, SEGUNDO lan hau aukeratua izan zen ere Rosarioko (Argentina) Emakume Zuzendarien Lehen Zinemaldian proiektatua izateko.

El cortometraje *AZKEN, SEGUNDO*, producido por Larrotxene, obtiene el premio al mejor corto de ficción en Lekeitio

Enkarzine e Ikuska han seleccionado también otras producciones del centro cultural audiovisual

El cortometraje ***AZKEN, SEGUNDO*** ha resultado ganador del premio al mejor corto de ficción amateur en la **XXXII Zine eta Bideo Bilera** de Lekeitio, que finalizó este pasado sábado, 28 de noviembre. Este corto fue una producción de los alumnos del **pasado curso de Guión Iniciación**, impartido por **Michel Gaztambide y Jorge Gil**. El vídeo fue dirigido por **Nahikari Beltza**.

El pasado curso 2008-09 el área audiovisual del Centro Cultural Larrotxene de Donostia generó **21 trabajos terminados**. De ellos **13 fueron producciones nacidas de los diferentes cursos** impartidos en el centro, y **8 coproducciones** beneficiarias de las ayudas y asesorías técnicas ofrecidas por Larrotxene. En estas últimas semanas más de uno de estos trabajos está recibiendo reconocimiento en forma de selección en diferentes eventos de cine y vídeo.

Así, el festival Enkarzine, celebrado en Zalla del 19 al 24 de octubre seleccionó el documental ***LA ÚLTIMA PUERTA*** para su sección a concurso. Por su parte, la XI Muestra de Cortometrajes de Pasaia (16 al 20 de noviembre) eligió como candidatos al mejor corto guipuzcoano las producciones ***LLEGARÉ TARDE, AZKEN, SEGUNDO*** y ***BIENVENIDOS A MI FIESTA***.

El mismo ***AZKEN, SEGUNDO*** también fue seleccionado para su exhibición la pasada semana en el Primer Festival de Mujeres Realizadoras, en Rosario (Argentina).